



Erkizia: «'Azkuna planak' gizarteko txiroenak zigortu nahi ditu» / 8



Veil eta Mehaignerie ministroek 'Pasqua legea' aldatu nahi dute / 14



Muruamendiaraz eta Agirre irabazle Dantza Askatuko Txapelketan / 25

Egunkaria

EUSKALDUNON

Asteartea, 1993ko ekainak 22 / IV. urtea / 787. zenbakia / Salneurria: 90 pta. / 5 libera

FUTBOLA

Agur Atotxari

Hiru orduko jaialdi bereziarekin azken agurra emango zaio gaur iluntzean Atotxa zelai zaharri. Beste zenbait ikuskizunen artean, Realak euskal selekzioaren aurkako partidua jokatu du, zortzi t'erdietan hasita. / 19

Babes sozialerako politika auzitan jarri du John Majorrek Kopenhagen

John Major Erresuma Batuko lehen ministroak Europako Komunitatearen politika soziala gaitzetsi eta gastu sozialak murriztea proposatu zuen atzo Kopenhageko gailurrean, Jacques Delors Europako Batzordeko lehendakariaren azalpenei egingako erantzunean. EK-ko beste gobernuburu eta estatuburuen sostengua ez zuen lortu ordea, eta politika sozial horrek ekonomi krisian eragina duela aitortu arren babes neurriei eusteko asmoa agertu zuten agintari europarrek.

Aurretik, Jacques Delorsek EKren konpetitibitate galeraren zergatiak azaldu eta krisiari aurre egiteko proposamen zehatzak egin zituen. / 15

BESTERIK

EKONOMIA

Aurrezki kutxek kostuak gutxitu behar dituztela dio Espainiako Bankuko gobernadoreak / 12

NAZIOARTEA

PDS eta Legak lortu dute garaipena Italiako hauteskunde partzialetan / 17

KIROLA

Kroazia da faboritua gaur Alemanian hasiko den Eurobasketeen / 20

KULTURA

Margaret Price bakarlari irlandarrak Bilboko Arriaga antzokian abestuko du gaur Musikaldiaren barruan / 24



Eztandak bete-betean harrapatu zuen furgoi militarra eta erabat suntsitu zen suak hartu ondoren.

EFE

Sei militar eta zibil bat hil dituzte Madrilen atentatuan

Ustez ETAk eragindako bi leherketek 25 lagun zauritu dituzte

Sei militar eta zibil bat hil ziren atzo goizean Madrilen bonbauto baten eztandak bete-betean harrapatuta. Atentatu honen ondorioz 22 lagun zauritu ziren, eta beste hiru pertsona zauritu ziren atentatugileek erabilitako autoa ordubete geroago lehertzean. Hildakoak Espainiako Armadako lau teniente koronel, fragata kapitain bat, sarjentu bat eta furgoi militarra gidatzen zuen zibila dira. Hogeita bost zaurituetatik lau oso larri zeuden atzo. Itxura guztien arabera ETA izan zen leherketaren eragilea.

Atentatua goizeko 8.15ean

gertatu zen. Sei militarrek eta zibila furgoi militarrean Estatuko Batzorde Nagusiko egoitzarantz zihoazela, lehergailuz betetako

Gonzalez: «Beti bezala ETaren asmoa desestabilizatzea izan da»

Espainiako eta Hego Euskal Herriko agintariek eta alderdi gehienek gogor gaitzetsi zuten atzo Madrileko atentatua.

Felipe Gonzalez Espainiako Gobernuako jarduneko lehendakariak «hilketa izugarritzat» jo

Opel Corsa autoa lehertarazi zuten urrutetik. Ibilgailu militarra bete-betean harrapatu zuen eztandak eta erabat suntsitu zen

zuen atentatua. Atentatuaren erantzulea ETA dela eta «beti bezala ETaren asmoa desestabilizatzea» izan dela gaineratu zuen Felipe Gonzalezek Kopenhagen egindako adierazpenean. / 5-6

suak hartu ondoren.

Arratsaldean ezagutu ziren zenduen izenak: Lur Armadako Fidel Davila Garijo eta Javier Baro Diaz de Figueroa teniente koronelak, Aire Armadako Juan Romero Alvarez eta Jose Carretero Sogel teniente koronelak, Domingo Olivo Esparza fragata kapitaina, Juan Manuel Calvo Alonso sarjentua eta Pedro Robles gidaria.

Zaurituen artean 8 urteko Juana Cañizo eta 20 urteko Maria Antonia Mezquita zeuden egoera larrienean —hiltzeko arriskuan medikuaren esanetan—. / 4